

# Lacq-etik Sestao-ra

TXILLARDEGI



**EZ** naiz ni ekonomialaria. Baina bi aldiz tokatu zait gertakari adierazgarriak bertatik ikustea.

Lehenengoa Lacq izan zen, Biarnon, Euskal Herriko mugatik kilometro gutxitara. Altxor gaitza aurkitu zen: gasa. Orain dela 30 urte hori. Gasaren erazketa hasi zen orduan, erruz, auserki. Gasa Parise aldera bidaltzen zen. Halako batez gasa bukatuta zela zabaldu zen, orain dela gutxi. Bertakoek, biarnotarrek, zer baliatu du-te? Orain zer? Galdera larriak altxorra hustu denean.

Eta handik urte gutxitara Bizkaia iri tokatu zaito txanda. Galdames-en, Triano-n, altxor bat agertu zen: burdina. Eratzketa hasi zen, maila txikiaren aurrean, erazule "pribatuak" bertakoak zirelarik. Kompania handiak sortu ziren gero (Ibarra-rena, aurrean, 1827an). Arrain handiek txikiak jan, eta Bizkaiko burgesia berria agertu zen joan den mendearen hasieran. Ikatza zela-ta, britaindarrek agertu ziren (Gales-ko herriekideak, bizkaitarren anaia bihurtzen zirelarik). Bizkaiko Ezkerraldea britaindarren kolonia bihurtu zen 1880-1920. Nork baliatu zen? Britainar inportatzaileek gehienik, eta tatekotza egiten zuten Bilboko burgesiak. Langileak, Bizkaiko mehatzariek, ezer gutxi: Lacq ondoko biarnotarrek bezala, beren lurraldeko aberastasunak "pasatzen" ikusi zituzten.

Orain altxorra bukatu da. Britainarrek bestetara jo dute. Bertako burgesen ondorengoeak, "pakea" eskatzen dute.

Meategietan zahartu eta hil ziren langile hauen semeek lana eskatzen dute, lana beldere. Eta Madrilera abiatu dira umilki, Bizkaia ezagutu zuten altxor harrigarriaren lekuko...

Ortuela-ko meategi-wagoitxo hori geldituko da hor, mutu. Bizkai hura hil egin da.

# Telebistaz

HASIER ETXEBERRIA



**PRESUPOSTU** garaiaik eztabaida sasoiak izaten dira beti politikarien artean. Arma dialektiko ederrenak, argienak, haundiak ateratzen dituzten hitzak. Ikuskizunak egingoroko diskurtso aspergarria eteten du eta behingoa gaitz vedette bihurtzen dira gure ordezkari publikoak.

Aurtengo Kultur Presupostuak zirela eta, ikuskizuna lapurtu ziguten politikariek. Ez zen eztabaidarik izan. Aho-betez izan ziren onartuak, gerora hainbeste eztabaida eta kezka sortuko zuten presupostuak. Joseba Arregi EIT-Bri buruzko debate sakon eta zabalak eskaini zuen onarpen haren ordainetan eta alderdi parlamentari guztiek irentsi zuten andoindarrak botatako amua. Kultur-gintzako eragilean erantzuna eta haserrea sortu arren, onarpen teknodemokratikoa euki zuten Kultur Saillburuaren proposamenek. Alderdi guztiak dira horretan partaide eta konplize.

Orain kontua beste bat da: sakoniraino eraman behar da Euskal Irrati eta, batez ere, Telebistari buruzko debata. Aurtun 10.100 milioi pezeta joan zaizkio Kulturatik EIT-Bri. Diru hori nola eta zertarako gastatu den aztertu behar da, lorpenak eta porrotak, denak hartu beharko dira kontutan. Baina zalantzak ditut muinera heldu nahi ote den. Ez da behintzat halako ezzerren aztarnarik.

Prentsan Amatiñoren hitzak baizik ez ditut ikusi nik. Badakizue, ETB bezain euskaldunik, bikainik eta zabalik ez degu beste bat Europa guztian, nahiz eta gero burujabetasunari buruzko manifestapena kirolaren atzetik eman.

Bere hitzez gain, pare bat pertsonak egunkarietara bidaltuko gutun partikularrak baizik ez dira aidentatu. Bide honetatik gure politikariek euskara kaxkarra darabilen kirol eta marrazki bizidunetz osatutako katea ikustera behartuko gaituzte.

# HEMEROTEKA

## EL CORREO ESPAÑOL

### Brittan jauna

Leon Brittan jauna, ziur aski Euskadin inoiz egon ez dena eta, gainera, John Major-ek ez bezala Avilán udarik inoiz ere eman ez duena, berdintzen zaila izango den lorpen bati esker sartuko da Guinness liburuan. Europartasunez jantzia eta sakonean britainiar abertzaletasunez kargaritiko bere erabakia dela eta, atsedean orduetan izen bereko bizioaren mende egoteko itxura duen ingeles honek orain arte ezinezkoa izandakoa lortu du. Ikus ezazue: Gobernu zentrala, Eusko Jaurritza, Euskal enpresariak, euskal sindikalistak —mota guztiak—, guztiak ere eta aldi berean, ados jarri ziren eta aho batez hortzak erakuste erabaki zuten Europako Komunitateko Eskumen Batzordeak Sestaako *altzaritegi txikia* bera ere ez zela bideragarria iragarri zuenean.

Atzo, Brittanen erabakia bahiagabetzearen ondorioz, Euskadi osoa atera da garaile: Europako Batzordearen ebazpenak arri-kurik gabe utzi du altzaritegi txikia sortu ahal izatea. Agian datu horrek hausnarketagai be-



GALLEGO & REV / DIARIO 16

zala balio dezake, lehen desadostasunak zirenei koherentzia ematen dion eta denak biltzen dituen kanpoko *etsai* bat dagoenean gaindiezinak diruditen iritzien kontraktotasuna leuntzeko giza-kiok dugin gaitasuna aztertzearren. Setiatutako gaztelaren sindromea da: fedegabearen erasoak, zaldunak eta glebako jopuak elkartzea lortzen du.

Galdara: litekeena al da aldiaren behin solaskide hauek guztiak gimnasia bera entseiatu, aurkari- taldean Brittan dutela irudikatu eta iritzi kontrajarriak hurbilaztea auzi aztertu saihes-tarren? Azuak bidaiari etekina atera liezaioke eta are Brittan aholkulari gisa kontratatu, ordezkoen aukilan eduki eta haserre giroak oso gora egindakoa

beroketa arietak egitera zelaira ateratzea ere. Seguru bere presentzia hutsak eragin taumaturgikoa izan eta adostasuna lortuko lukeela.

JOSE MARIA CALLEJA

## DEIA

### Jose Maria Olarra: hitzeko gehiegikeriak

Jose Maria Olarra HBko Mahai Nazionaleko kidea gaur epaituko dute Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian aho-bero izateagatik eta deskatu akusazioan, Enrique Mugica Herzog-i buruz, hau Justizia mi-

nistroa zenean «espainiar erako benetako Mengele» bat zela esan baitzuen. Egia da HBko lagunek hain ohituta gauzkatela hitzeko gehiegikeriak entzuzera non kasik harrigarria baita norbaitek horiek auzitegiara eramatea erabakitzen duenean. Atzo bertan, nahiz eta sinadurarik gabeko idazki baten bidez izan, HBk Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusiar foru zor-txarrelen beste jaulkipen baten alde egotea leporatu zion, eta gainera, hauen bidez «trafikiariak, mafiosoak eta ustelduak babesteko asmoa duela» ziurtatu. Akusazioak, ezba-rik gabe, serioak dira. Nahiz eta, akusazioak nondik datozen ikusi-rik, agian irrikaitz bat besterik ez duten merezi. Bai txotxoloak!

PERFILES

# UZENDARIARI

## Herriko irakaskintza publikoak plangintza bat eskatzen du

Urteak aramazkigu, Gay-Mur eta Langilek planifikazio honen beharra eta nahia azaltzen, (bai eskola-ikastolen mailan, bai Udaletxean, Deleazioan) baina iskanbiletara iritsi arte ez du inork zer esanik izaten.

Herri mailako planifikazio ezaren eta horretarako borondate faltaren ondorio besterik ez dira, aurtengo ikasturte honetan, Urumea-Elkano Gay-Murren sartzek (Deleazioaren agintez eta Gay-Murreko Kontseilu Eskolar- rarenkin eta irakaslegoarekin ezertarako kon- taktu gabe) sortutako arazoak eta gu (Langile ikastola) irailaren haseran, inongo aurre abi- sorik gabe, joandako 8 urte hauetan erabil- tzen ari garen *Gay-Mur txikio* lokaletatik (Elkano sartzeko) atera nahi izana.

Herriarren batek ez badaki argitu nahi dio- gu, (Udalak eta Deleazioak betidanik jakin

dutenez) Gay-Mur eskola eta Langile ikasto- lak elkarrekin egindako Eskolaurreko Proiektua martxan jarri ahal izateko (orain dela 8 urte) beren eskolaurreko gelak elkartu zituztela eta ondorioz bi ikastetxeetako esko- laurreko lokalen erabilera.

Hermanin norbaitek ez badaki argitu nahi dugu, «Kilometroak 82», gure ikastolak anto- latuta osatu zenez gero publikoki eta garbi aski azpazu dugula, gure «publiko» izateko borondatea. Euskal Jaurritza osatzen joan diren alderdien inkapazitate, maniobra politiko eta borondate faltagatik, oraindik egiazta- tzerik izan ez bada ere. Horregatik pentsatu- dugu, azken orduan eta zalapartaka «publiko» egin zaigun (ez dakigu nola zergatik eta zer- tarako) ikastolak hainbat eskubide dugula, he- rriko lokalen erabilerrak. Zer esanik ez, historikoki erabiltzen ari garenekiko.

Gutun ireki honen bidez, behin eta berriro aldarikatu dugun Herriko plangintza esko- lararen ardura har dezala eskatu nahi diogu Udaletxeari, eskola guztien partaidetzerakin osatutako Herri Kontseilu Eskolarra bultzatu

eta dinamizatu.

Dei berezi bat luzatu nahi diegu ikastetxe guztiei, plangintza honetan parte hartzea animatu daitezen, guztion artean Erreformar- en eta Derrigorretz Ikasketen Bigarren Eta- paren desafioa, gaitiduz dezagun, gure neska- mulentzat, merezi duten Hezkuntz es- keintza Hermanin egokituz.

Eta Hezkuntz Sailari, Eskoletako partai- deekin eta herriko zentsoririk gabe erabaki- rik eta momentu honetan mapa eskolaren di- seinurik burutu ez dezan.

Izan ere, hori horrela egiten ez bada, guztiok heziketaren subjeto aktiboak sentitzen ez baga- ra, eta gauzak goitik beraz ezartzen bazaar- kigu, berriro ere eta luzerara gabe iskanbilak izango ditugu eta tristeeena... erreformaren ber- rikuntza «paperetan» geldituko da eta gale- nan... gure haurrak (kasu honetan Hermaniko neska-mutilak) iritengo dira.

LANGILE IKASTOLAKO ESKOLA KONTSEILUA

Hernani (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA

## Real Madrid-Athletic



San Mameseko lehoioi zer bait nahi nizukek nik esan, Jerezen jausi izanagatik zoritxarreko sorpresan, Madril aldera joan berriro martxa onaren piskisan, posible bada behintzat ez dadin beste batzuetan gisan, aurtengo liga aurrekoaren errepikapena izan.

IGOR ELORZA

# Egunkaria

Batzorde Patxakoa 725041 Legu Ondaluz: SS 80090

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: ISAKI URUA

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEHARRRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBEIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANITZA S.A. Industrialdea 01-02

Fabrika: 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 85 / Faxa: 36 54 93

Egokita soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintza, 16-1 / 20010 Domostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iritzi dorrea) /

31011 Inuea / ☎: 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskua. / 48002 Bilbo /

☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila,

/ 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11